

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzarako protokolo orokor berria maiatzaren 10ean formalizatuko dute

Foru Gobernuak akordioaren testua onartu du gaur, eta bertan 18 alor zehatzetan jarduerak egitea aurreikusten da

Asteazkena, 2016.eko maiatzak 4

Nafarroako Gobernuak gaur, asteazkena, egindako bileran Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko [lankidetzarako protokolo orokor](#) bat onartu du; haren bidez, bi autonomia erkidegoen lankidetzarako oinarriak finkatzen dira, eta beraien arteko harreman-bideak zehazten; hala, hemezortzi jarduera-arlotan berariaz aplikatzea zehazten da honako esparru hauei dagozkienak: ekonomikoa, soziala eta kulturala, administratiboa, azpiegiturak eta teknologia.



Barkos eta Urkullu lehendakariak, aurreko bilera batean.

Eusko Jaurlaritzak atzo onartutako protokoloa Uxue Barkos eta Iñigo Urkullu lehendakariak sinatuko dute maiatzaren 10ean, Gasteizen.

Testu berri bat da, eta bi autonomia erkidegoek 2009ko uztailaren 3 an izenpetutakoa zabaltzen eta eguneratzen du; hura abiadura handiko trenera, ETB ikustera eta euskara sustatzera mugatzen zen.

Nafarroak antzeko beste hitzarmen batzuk ditu alboko beste eskualde batzuekin, Errioxarekin eta Aragoirekin, adibidez.

Lankidetzaren behar bat

Foru Gobernuak onetsitako testuak dioenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak harreman berezia dute, eta harreman hori kidetasun historiko, kultural, linguistiko, turistiko eta soziokultural batek bereizazten du; lankidetzarako tradizio luze bat partekatzen dute, gainera, "eta haiei esker, beren administrazioetako jardueren koordinazioa hobetzeko loturak ezarri daitezke".

Alde horretatik, gogorarazten da autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren Autonomien Estatuaren barnean inplizituki ageri dela, eta gero eta beharrezkoagoa dela autonomia erkidegoek jorratu behar dituzten gaien aniztasuna ikusirik eta mugitzen diren Europako testuingurua nolakoa den ikusirik.

Horregatik, lankidetzaren horrek "bi autonomia erkidegoen interes

komunak asebetetzen lagunduko duela iritzi du arrazionaltasun, sinpletasun, gardentasun eta baliabideen ekonomiaren terminoetan; horrek guztiak biek dituzten zerbitzuak era haien kudeaketaren kalitatea hobetzen lagunduko du".

18 jarduera-alor

Lankidetzarako akordioak, oro har, berriazko hemezortzi esparrutan aurreikusitako ekintzak zehazten ditu.

Alor sozialean, honako atal hauetan zehazten dira jarduerak: gizarte-zerbitzuak, berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria, osasuna eta kontsumoa, gazteria eta kirola, hezkuntza eta kultura, hizkuntz politika, bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak, bai eta babes zibila eta segurtasun publikoa ere.

Alor ekonomikoa, ekintzak ondorengo gaietan zehazten dira: espezializazio adimentsuaren estrategia eta garapen ekonomikorako faktoreak, turismoa; ingurumena, klima-aldaketa eta lurralde-antolamendua; nekazaritza eta landa-garapena, eta ogasuna eta finantza-politika.

Bestalde, administrazioaren esparruan, honako hauetan egiten da azpimarra: Toki Administrazioa, Justiziaren Administrazioa eta Funtzio Publikoa. Azpiegituren alorrean, berriz, garraioari eta ikus-entzunezkoen komunikazioari lotutako jarduerak zehazten dira, eta teknologiaren kasuan, administrazio elektronikoa lotutakoak.

Lankidetzarako zazpi modalitate

Protokoloak lankidetzarako zazpi modalitate aurreikusten ditu:

- Bi autonomia erkidegoen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala erraztuko duten proiektu partekatuak.
- Ekintza komunak, eta haien bidez lortuko da: bi lurraldeetako herritarrenganako arreta hobetzea, lehendik dauden baliabideak optimizatzea eta bi lurraldeetako baliabideen nahiz dispositiboen koordinazioa sustatzea.
- Bi aldeen arteko komunikazioak eta gainerako autonomia erkidegoekin daudenak hobetuko dituzten azpiegiturak egitea.
- Informazio-trukea erraztuko duten informazio nahiz komunikazioko teknologiak garatzea.
- Esperientziak trukitzea eta prestakuntzako ekintzak elkarrekin egitea bi autonomia erkidegoetarako profesionalentzat.
- Dagokion autonomia erkidegoko lurralde-eremutik at emandako zerbitzuen jarraipena egiteko ahalbidetzen duten mekanismoak garatzea.
- Bi autonomia erkidegoetako zerbitzuak eta haien kudeaketaren kalitatea hobetzea xede duen beste edozein jarduera.

Hitzarmenen bidezko garapena

Protokolo orokorrean ezarritako ekintza zehatzak finantzatzeari, antolatzeari eta egikaritzeari lotutako baldintzak kasu bakoitzean adosten diren berriazko tresnetan finkatuko dira (hitzarmenak, akordioak...), eta bertan alde bakoitzak zer betebehartzen dituen bere gain erabakiko da.

Tresna horiek formalizatzen direnean, protokolo orokorrean eranskin modura jasoko dira.

Protokoloan eta etorkizunean egingo diren hitzarmenetan aurreikusitako jarraipena aldeen arteko informazio-trukearen bidez egingo da, eta emaitzak ebaluatzeko eta baloratzeko txostenak eginez.